

**XVII KARTEL LEHIAKETAREN OINARRIAK**  
**Martxoaren 8a - EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA - 2025. urtea**

**Lehena.- Parte-hartzaileak**

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango du 18 urtetik gora duen edozein pertsonak, banaka edo taldean, epaimahaikoek eta Zarauzko Udaleko langileek izan ezik. Egile bakoitzak gehienez lan bat aurkeztu ahal izango du, eta originala eta argitaragabea izango da.

**Bigarrena.- Gaia eta ezaugarri teknikoak**

Kartelen gaiak zerikusia izango du martxoaren 8arekin, hau da, Emakumeen Nazioarteko Egunarekin, edozein ikuspuntutik, eta ondo ikusteko moduan ondoko testua bakarrik jarriko da:

**2025eko martxoaren 8a - Emakumeen Nazioarteko Eguna**

Lanak egiteko garaian kontuan izango da lanaren erreprodukzioak zailtasunik ez ematea eta lau tinta baino gehiago (kuatrikomia) behar ez izatea. Baztertuta geratuko dira urre eta zilar koloreak, bai eta kolore fluoreszenteak ere.

(\***Kuatrikomia**: lau koloreen nahasketan -ziana, magenta, horia eta beltza- oinarritutako inprimatze-sistema bat da. Kolore horiek proportzio desberdinetan nahastuta lortzen dira gainerako koloreak).

**Lanak nahitaez ordenagailuz egingo dira eta e-mailez bidaliko dira helbide honetara:**  
**[berdintasuna@zarautz.eus](mailto:berdintasuna@zarautz.eus)**

Parte hartzeko bidalitako artxiboek ondoko ezaugarriak izango dituzte:

- formatua: JPG
- bereizmena: 300ppp
- neurriak: zabalera: 40 zm. - altuera: 50 zm.

Bidalitako artxiboek NAHITAEZ ondorengo baldintzak beteko dituzte:

- Artxiboari fikziozko izen bat jarri behar zaio kartela identifikatzeko, baina egilea ezin identifikatzeko moduan.
- Artxibo horrekin batera, kartelaren artxiboari emandako izen berbereko karpeta batean egilearen ondorengo datuak bidali behar dira nahitaez:
  - Izena eta bi abizenak
  - Jaiotze-eguna
  - Helbidea
  - Telefonoa
  - Posta elektronikoa
  - NAN edo atzerritarren kasuan nortasun agiri ofiziala, bere bi aldeak eskaneatuta.

Edozein datu edo karnetaren kopia falta bada, kartela lehiaketatik kanpora geratuko da.

Egilearen ardura izango da lehiaketara aurkezten dituen informatika-artxiboak behar bezala eginda egotea.

Lanak originalak izango dira, hots, egileak berak sortutakoak.

Martxoaren 8a sustatzeko eta bere publizitatea euskarri desberdinetan (kartelak, foiletoak, elastikoak, imanak, web orria, pankartak..) egiteko erabili ahal izango dira saritutako kartelak.

Zarauzko Udalak ahalmena izango du karteletan Zarauzko armarrria eta egoki iritzitako informazioa txertatzeko.

Kartel irabazlearen egileak kartelean txertatu beharko du Zarauzko Udaleko Berdintasun Departamentuak martxoaren 8rako antolatutako ekitaldien egitaraua. Gainera, egitarauaren foiletoa ere diseinatu beharko du kartel irabazlearen diseinu berarekin.

### **Hirugarrena.- Aurkezpena**

Lanak aurkezteko epea 2025ko urtarrilaren 20ko 12:00etan bukatuko da.

Kartelean pertsonaren baten irudia agertuz gero, irudi hori kartelean azaltzeko eta kartelaren edizioa egin ahal izateko pertsona horrek emandako baimena, sinatuta, aurkeztu beharko da.

### **Laugarrena.- Saria**

Bi sari egongo dira:

- Epaimahaiak emandako saria: 600 euro
- Jendeak gehien bozkatutako kartelaren saria: 200 euro

Sari horiek indarrean dagoen legerian ezarritako atxikipena izango dute.

Aurkeztutako lanak oso kalitate txikikoak badira, lehiaketako saria eman gabe uztea erabaki dezake epaimahaiak.

Saria ordaindutakoan Zarauzko Udala lanen jabe legitimoa izango da, bai eta lanak ustiatzeko eskubideen jabea ere. Halaber, oraingo eta etorkizuneko euskarri eta plataforma guztietan saritutako lanaren erreproduzio, moldatze, banatze, komunikazio eta zabaltze eskubideen jabea izango da.

### **Bostgarrena.- Balorazio irizpideak**

Kartelen balorazio eta aukeraketa prozesuan ondorengo irizpideak kontuan hartuko dira:

- Kalitatea eta originaltasuna
- Proposatutako gaiarekiko egokitzapena
- Sormena

### **Seigarrena.- Epaimahaia**

Epaimahaia honela osatuko da:

Epaimahaiburua:

- Gloria Vazquez Herranz: Zarauzko Udaleko Berdintasun zinegotzia edo honek izendatutako pertsona.

Epaimahaikideak:

- Diseinuan eta komunikazioan bi aditu
- Myriam Gonzalez Txabarri Azpeitia, Zarauzko Udaleko erakusketen arduraduna edo honek izendatutako pertsona.
- Berdintasun Kontseiluko ordezkari bat

Idazkaria:

- Irati Baroja Agirregabiria, Zarauzko Udaleko Berdintasun departamentuko arduraduna edo honek izendatutako pertsona.

### **Zazpigarrena.- Lanen hautaketa eta bozketa**

Epaimahaiak, oinarri hauetan jasotako baldintza guztiak betetzen dituzten aurkeztutako kartelen artean, aukeratuko du kartel irabazlea.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da eta jakitera emango da, aurkeztutako lan guztiekin batera, Berdintasun Departamentuaren blogean eta sare sozialetan.

Bozketa: jendeak Facebooken bozkatu ahal izango du “me gusta” atalean klik eginez. Boto gehien lortzen duen kartelak herritarren saria lortuko du.

Otsailaren 3ean jarriko ditugu kartelak Facebooken eta ordutik otsailaren 7ko 10:00ak arte bozkatu ahalko da.

Berdintasun departamentuak aurkeztutako lan guztiekin erakusketa bat jarriko du Emakumeen\* Etxean.

### **Zortzigarrena.- Sarituak edo hautatuak izan ez diren lanak**

Erakusketa bukatzen denean, saririk jaso ez duten kartelen kasuan, jasotako artxiboak eta erakusketa horretan erabilitako kopiak suntsituko ditu udalak.

### **Bederatzigarrena.- Azken arauak**

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri horiek guztiak onartzea.

Informazio gehiago:

Zarauzko Udala - Berdintasun Departamentua  
Nafarroa kalea 3-C - 20800 ZARAUTZ -  
Telefona: 943-005117  
Posta elektronikoa: [berdintasuna@zarautz.eus](mailto:berdintasuna@zarautz.eus)  
Web: <https://www.emakumeenetxea.zarautz.eus/eu/>  
Facebook: Zarauzko Emakumeen Etxea